

# Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko maiatzak 15 / II. urtea / 24. zenbakia

## Opus Dei, aldareetara

Igande honetan, hilak 17, Elizak dohatsu izendatuko du Erromako San Pedro plazan Josemaria Escriva de Balaguer, Opus Deiko (Jainkoaren Ekintza) fundatzailea. Beatifikaziora berrehun ta hogeitabost mila lagundik gora azalduko dira, eta bere jarraitzaileen artean izugarritzko ikusmina sortu badu ere, polemika ere biztu du gizartean, bai erakundearen izakera eta eragina dela eta, nola prozesu bera dela medio, azkarregi eta ez ohizkoa. Opus Deiren gauzatze nabarmenetakoa Nafarroako Unibertsitatea dugu, eta horko Teologia Fakultateko Dekanoarekin mintzatu gara Opus Dei, Escriva eta beatifikazioaz.



### Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

**K**ontua ez da baserria gainbehera doala soilik esatea. Hori baino askoz gordinagoa ere bada. Baserria jota dago guztiz. Produktio molde bezala, desagertzearen bidean: hil ala biziko hestualdi gorrian.

Behi esnearen etekinak gutxituz doaz etengabe, explotazio kostoak, batik batik hazienda txikitakoak, esne-ordainak ia berdintzeraino iritsi bait dira aspaldian. Hori gutxi balitz, arkumearen sal-neurriak haragitegi eta jate-txectan ez beste gora egiten duen bitartean, prezio fijo edo beherunzko joeran pagatzen diote ekoizleari.

Zein izango ote da baserriaren bizimodua berezko iturririk gabe? Zein izango ote, aurrerakoan, baserriaren zutarria?

Baina baserriak ez du inoiz aisa izan. Sei urte badira Elkarte Europearrean sartu gintuztela, eta sail honetako arazoak haundiagotu baizik ez dira egin: zalditik astora, eta astotik lurrera amilka joan baserriarra ordudunik.

Bere produktuen kalitateaz soilik fido izaten zen eta orain, ahoa bete hortz utzi du merkatu masiboaren jokatibideak. Egiazko Europatik inportatzen diren abelburu, okela eta esnea barruko merkatuan salgai paratu dutenetik, bertoko produktuen kalte eta kanpokoen mesederako suertatu da prezio eta kalitatearen arteko lehian. Erosleak, prezio baxuago baten aurrean, ez omen dio produktu jatorriari begiratzen, prezioari baizik.

Bestetik, esne kuota direla eta ez direla, nahi bezainbeste esne ekoiztu ezinean dabil ganaduzalea eta, zenbaterainoko buruauste duten argiro esateko, azal dezagun artilea ere ez dutela saltzerik izaten, alperrikakoarekin zer egin gainerako beste arazo bat ere bihurtu zaielarik.

Orduan bada, ez da harritzekoa zenbait baserriaren hartutako erabakia: lanari utzi eta baja inzentibatua deritzona onartu izana.

Bien bitartean, eta beste soluziobide hobeagorik ezean, beren atek zabaltzeko dizkigute banaka batzuk, kaletarrok geure atsedenaldiak baserri giroan eman ditzagun. Turismo etxean esperientziak bi urte bete ditu dagoeneko Nafarroan eta, etxe jabeek zein bisitarien beren poza agertu dute egonaldiak. Diru-iturri berria ziurtaturik dute antza, jendearen onespina eta eskariak hola baieztatzen dute eta.

Pozak poz, saio honek baditu era berean, bere arriskuak: familiaren barruko intimitate eta loturak galdu ahal izatea, baserriko lanari baino atentzio gehiago bisitari ematea, etxeko andreak lan gehiago bizkarratzea, euskeraren ordezkatzeko eta galtze prozesua azkartzea, kanpotarren aurrean morroi bezala jokatzea eta beste.

Guziarekin ere, protagonisten eritzia aldekoa da guztiz eta, hain xuxen, saio honek ekar ditzakeen on-gaitzak aztertzearen, elkarganatzaren hasi dira Baztanen, etorbidean ustekabe okerrekin ez topatzeko.

Bide onetik jakin nahi baduzu, baserriko atek dituzu zabalik!

### Barnean

#### ARANGUREN



Mankomunitatea eta udalaren arteko elkarrizketa hastear / VII

#### ARRETXE



Luzaidekoak ezin izan zuen Retegi gairiditu / VIII

## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK



**Txuma Argiñariz** artistaren erakusketa ikusgai dago Iruñeko Lankide Aurrezki Kutxaren aretoan maiatzaren 31a arte. Iruñean jaioa den pintore honek sari asko jaso ditu eta erakusketa askotan hartu du parte.

**Ana Mari Marin** Elizondoko artista honen erakusketa Iruñeko Maisonave hotelean ikus daiteke maiatzaren 26a arte. Pintoreak bere azkeneko 55 obrak ekarri ditu, 5 olio eta 50 akuarela, besteak beste. Artelanetan Baztango txoko askoren irudiak agertzen dira, Iruñeko zenbaitekin batera.

### ZINEMA



**'Delikatessen'** eta **'Regreso al futuro III'** izeneko filmak eskainiko dituzte asteburu honetan Leitzako zinematokian. Lehendabizikoa gaur, hilak 15, gabeko 10.30etan izango da eta bigarrena igandean, maiatzak 17, botako dute, arratsaldeko bostetan. Igandean baita, baino berandua, hau da, zortzietan, **'Delikatessen'** pelikula berriro emango dute.

**'Offeko Maitasuna'** filmearen aurkezpena gaur izango da Iruñean, Golem zinemetan. Pelikula euskaraz eta erdaraz ikusteko aukera dago. Monica Molina, Patxi Bisquert eta Fernando Guillen Cuervo dira filmaren protagonistak, eta Koldo Izagirre

### ERRAN DUTE

**Ez dut damu egindakoa, banezien zertan ari nintzen eta».**

**Fermin Azkona**  
Intsumisao

**«PSOE eta EAK bazterrak nahastu baino ez dute nahi autobidearen trazaketaren aldaketaz hitzegiterakoan».**

**Juan Cruz Alli**  
Lehendakaria

**«Delgado bakarrik dagoe-la esateak asko mindu gaitu».**

**Aitor Garmendia**  
Txirrindularia

**«Autobiaren auzian ekologia ez da oso ongi atera».**

Batzarre


## Autobidearen inguruan

Autobidea eztabaidatsua lanek aurrera egiten duten bitartean, ez da oso aukera ederra inguruko herrietara joatea, zarata eta makina pilak ez bait du uzten behar den patsadarekin dastatzen bazter ederrak. Hala eta guzti, asteburu honetarako, Imotz ibarra aukeratu dugu bertatik ibiltzeko eta ahal den patsadarekin aritzeko.

Ultzama eta Basaburuaren artean, Imotzko jende franko etorri da azken urteotan Iruñerria. Horrela, bertako herri askok ikusi dute euren populazioa murriztuta, beste ibar askori gertatu zaien bezalaxe, alegia.

Etxaleku da herririk garrantzitsua eta San Estebaneko elizaz gain, San Pedroko basiliza ikus daiteke bertan. Halaber, keramika tailerra badago.

Etxe ederrak ia denak, baso eta inguruan dauden bazter ezkutuak dira merezimendu gehien dutenak. Izan ere, muino berdeen ar-



tean, pago eta haritzen nabarra tartekatzen da, eta izen desberdinak izanda ere, ibar hauen artean ez dago aldaketa aunitzik. Hori

dela eta, Imotzen bakarrik gelditu ez baina inguruko herrietara ere joatea proposatzen dizuegu, oinez, txirrindulaz, zein kotzez.

zuzendaria. Musika Oskorri taldeak egin du.

### IKASTAROAK



**Orientabide eta kartografia** gaiei buruz ikastaro bat antolatu du Nafarroako Kirol Taldeak. Ikastaroa datorren ostegunean hasiko da, maiatzak 21, eta bertan ikastaldi praktikoa eta teorikoa

emango dituzte. Informazio gehiago lortu edo apuntatu nahi duenak Talde honek Jarauta kalean duen egoitzara joatea besterik ez du.

**Polaritate Masaia** ikastaro trinkoa antolatu du IPES Elkarrekin asteburu honetarako. Antonia Montagud eta Begoña Gomez Quiromasaje eta Shiatsun diplomatuak emango dute hamasei orduko ikastaro hau, gaur arratsal-

dean, larunbat osoan eta igande goizera arte luzatuko dena.

### ANTZERKIA



**'Pareja abierta'** (Bikote irekia) antzerki saioa eskainiko du gaur arratsaldean Zaskandil antzerki taldeak Bargota herrian. Ekitaldi hau Nafarroako Gobernuak antolatutako Udaberri Jira Bira pro-

gramaren barruan dago, eta herriko Elkartearen izango da, arratsaldeko zortzietan.

**'Hemen ez du inork ordaintzen'** antzezlan eskainiko du Alba taldeak Figarol herrian. Antzerkia bihar izango da, maiatzak 16, gabeko hamarretan udal txeko lokaletan. Saio hau Udaberri Jira Bira Gobernuko programazioaren barruko ekitaldia da.

**'Goloka'** talde bilbotarra arituko da igandean, hilak 17, Bianaoko Foru Enparantzan, 13.30etan. Ikustaldi berezia prestatu dute haurrentzako, aurtengo Nafarroa Oinez dela eta, igandea Umearen eguna izango da herrian.

### MUSIKA



**Tapia eta Leturia** arituko dira larunbatean, hilak 16 Tafallako plazetan, AEK Jiraren barruan antolatu den ekitaldian. Jaialdia gaberditik aurrera izanen da.

**Balderi Balderi, Bap,** Dekadencia, eta beste talde batzuk arituko dira bihar larunbatean, hilak 16, Iruñeko Lore Etxean, okupen etxean, alegia. Kontzertua gabeko bederatzietan hasiko da, eta Expo'92 kontra antolatu da.

**Tijuana in Blue** ikusteko parada izango da heldu den asteartean, hilak 19, Iruñeko Ertz tabernan. Talde berezi honek ez ditu ekitaldi gehiegi egiten, eta asteartekoa, gabeko bederatzietan, ezin galtzekoa da bere jarraitzaileendako.

### ASTEKO PERTSONAIAK


#### Serafin



Abeslaria

Zubiriko abeslaria hamabostgarren tokian gelditu zen joan den larunbatean Malmoen (Suedia) izan zen Eurovisioneko jaialdian. Serafinek, 'Todo esto es la musica' ('Guzti hau da musika') abestiarekin, lehendaibiziko postuan abestu zuen, eta horrek, adituen ustetan, eragina izan zuen puntuazio baxua izaterakoan. Hala eta guztiz ere, bere aktuazioak izugarriko ikusmina sortu zuen bere herrian, eta kantariaren familiak duen tabernan egon ondoren, afari ederra egiteko parada izan zuten gazteek. Parranda, beraz, Serafinen kontura.

#### Javier Mauleon



Txirrindularia

Arabian jaiotakoa baina Estelerrian hazitako txirrindulariak irabazi zuen Naranco gainan amaitu zuen Espainiako Itzulian etapan. Javier Mauleonek izugarriko finala egin zuen, indarrez betea, eta atzean Rominguer zuela eta etapa haien esku zegoela irudi bazuen ere, tubular batek aldetik irabazi zuen azkenean, Montoya liderrak gain gainean jarri bait zien helmugan. Bigarren etapa CLAS taldearen dako, beraz, eta bigarrena ere Vuelta honetan euskal txirrindulari batendako, Unzagak lortu zuenaren ondotik. Azkena ez da dila izan.

#### Antonio Arraiza



Kaputxinoa

Utergako kaputxinoak joan den igandean ospatu zuen bere ehungarren urtebetetzea, modu bitxi baten bidez, hau da, aurreko dantzatzuz. Naparrak Errenteriko Fatimako elizaren aurrean egin zuen dantza, bertan zeuden guztien harridurako. Antonio Arraizak egunero elizaren eskalierak erratza baten bidez garbitzea du zeregina, eta horrek 'Fray Escoba' izengoitia ekarri dio. Duela 22 urte joan zen Errenterriara, eta han sortu duen miresmenen lekuko izan zen igandeko omenaldia, bertan Ereintza dantza taldea, Andra Mari abesbatza eta bertsolariak izan bait ziren.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... Informazio Saioa Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratia saioa. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenan 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenan 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.



Oreja III eta Oreja II (ezkerrean), Agoizko frontoian, 1972an.

## Errazkingo ospetsuei omenaldia

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Errazkingo herriak omenaldia eskainiko die bihar larunbata, hilak 16, bertako seme ospetsuenei. Pilotariak, korrikalariak, bertsolariak, guztira hamazortzi izango dira herriaren onespina jasoko dutenak, bertako gazteek bultzatutako ekimenari esker. Honen aitzakiaz ere heritik kanpo bizi diren errazkingar franko hurbilduko dira herrira, eta ehun bat lagunendako bazkaria espero dute antolatzaileek, eguraldia lagun izanez gero.

Omenaldia egiteko ideia, esan bezala, bertako gazteengandik sortu zen, lehen —bereziki pilotan— izandako afizioari segida eman ez zitzaioala ikusita. Izan ere, ez da errez topatzekoa lehen berrehun bat biztanle zuen herrian —egun 80— horrelako pilotari kopuru handia.

Omenatuak ondorengoak izango dira: Oreja anaiak lau, de-

nak pilotariak; Antsorenatarrak beste lau, hiru palistak eta bestea puntista; Elizalde, pilotaria; Otermin erremontista; Matxinandiarena, erremontista hau ere; Martinikorena pilotaria; Elizalde zaharra, eskuzko pilotaria; Intxaurren pilotaria, hau hilda; Argiñarena korrikalaria; Argiñarenak bertsolariak; eta Martin Oreja bertsolari zaharra. Egun soilik Martinikorena pilotaria eta Argiñarena korrikalaria aritzen dira, Argiñarena bertsolariak kenduta.

Festa eguna 11.00etan bertan egingo den mezarekin hasiko da, eta ondoren omenaldia izango da frontoian. Horretarako dantzariak izango dira, eta arkuen azpitik pasata, oparia eta oroigarriak emango zaizkie guztiei. Ondoren pilota partiduak —nola ez!— izango dira frontoian. Lehendabizikoa, gazteen artean, eta bigarrena Martinikorena-Elizalde Intxaurren-Oreja IIren au-



Joxe Fermin Argiñarena.

rreran. Tartean korrikalariak ere arituko dira.

Ondoren bazkaria egingo dute herriko plazan, trikitalari, bertsolari eta abarrekin. Antolatzaileek espero dute bertan bizi direnak ez ezik, kanpoan aritzen diren franko hurbiltzea, egiten den lehendabiziko omenaldia ez bada ere, berriro biltzeko aukera paregabea delakoan.

Herrian izan zen afizioa guztiz azpimarratzekoa da, Jesus Mari Orejak, Oreja II, azaltzen duenez. «Nekez aurkituko da hain jende gutxi duen herrian horrelako pilotari kopurua. Afizioa handia izan zen gure garaian, eta gazte asko atera ginen. Hala ere, aurretik zetorren afizioa zen hura, gure aita, osaba, eta, horretan ere aritu zirelako».

Gaur egun, baina, zeharo galdu da, bai afizioak behera egin duelako, nola herrian bertan dagoen gazte falta dela eta. «Orain badaude hiru edo lau mutil koskor herrian —dio Orejak— baina ez dago lehengo afizioa pilotan jokatzeke. Gainera, ikastoletan eta, futbolekin eta beste kirolekin aritzen dira, eta afizioa galtzen da. Lehen, jendea hemen bizi zen, eta, frontoia besterik ez zegoenez, ba, pilota jokatzeraz». Ez zen, baina, herri kirolerako afizio handirik izan. «Hemen, ia bakarrik pilota. Artista ginen eta».



Oreja II eta Elizalde, Errazkingen 1972an egin zen omenaldiaren atarian.

mintzoak

## Urak dakarrena

● Ez dugula behar bezalako eskolarik izan gauza jakina da; ondorioz ez dugu gure Herria ongi ezagutzen, ez historiarik, ez geografiarik, ez kulturarik... Hala da, baina honek ez luke inor asaldatu beharko... gure historiaren ondorioa bait da. Eskandalagarria dena gaur egun, inguruan ikusten duguna da. Hona hemen adibide zenbait.

Duela hiru urte Peña Santiagok ohizko mendi liburua atera zuen: *Euskal Pirineoa*, erdaraz egina, egilea erdalduna bait da. Euskarazko bertsoia egiterakoan, itzultzaileak ez zuen denbora sobera galdu, ez. Ikusten bazuen, adibidez, *de Alduides a Burgetera* idazten zuen, *Aldudetik Auritzera* zuzenaren orde. Itzultzaile honendako *Abaurrea Alta Goi Abaurrea* edo *Abaurrea Goikoa* (!!!) da, Abaurregeina (ofizialki Abaurregaina) egiazko izenaren orde; era berean *Valle de Salazar* —Zaraitzu— *Salazar Harana* omen da, bertakoak *salazartarrak* direlarik duikabe; Aezkoako *Villanueva* —Hiriberri— *Billanueva* bilakarazten du ahalkerik gabe, *Espinal* —Auzperri/Aurizberri— halaxe gelditzen da; *Saint Michel* —Eihalarre— herriarekin gauza bera (beharrik ez zuela *Sen Mixel* paratu!), *Cisa* —Garazi— *Zisa*... Bertzalde *hórreo* —gare— hitzarekin ezin asmatuz ibili omen zen, *aletegia* idatzi bait zuen (irudimena faltan ez zebilen bederen).

*Euskal Herriko Atlas*a deitutako liburu sortan, *Mendiak* liburuan *Burgeteko zelaia*k irakur daiteke eta (pitxirik ederrena!) *Valcarlos* —Luzaide— *Euskaraz Balkar*os omen da. To, *Euskarazko Atlas*a!!

Finitzeko telebistako programa bat. Duela gutxi Irati oihanari buruzko *Urak dakarrena* saioaren emanaldi bat ikusi ahal izan genuen. Hasteko iguingarriak egin zitzaizkigun aurkezle, idazle eta zuzendariak aspertzera ino errepikatu zituen zehaztasun zenbeit, sobran daudenak gaur egun: *Frantziako Euskal Herrian*, *Iparraldean*, *Frantziaren aldean*... arrotz batek ez luke hobeki egingen.

Hortaz gain, behin eta berriz Aezkoako biztanleak *aezkoarrak* garela aditu genion eta, egia errateko, hori entzuteaz aspertzurik gaude. Aezkoako jendea aetza da, Lapurdiko Ahetze herrikoak bezala bertzalde (Martin bertsolaria ahetza zen).

Hau jakitea ba, ez da arraz zaila... hortaz mintzatu behar bada batez ere; hor dago, adibidez, berriki (1990) plazaratutako *Nafarroako Herri Izendegia* (Euskaltzaindia). Garai batez kazetariak arrotzak edo erdaldunak izateari leporatzen genion hobena; berantago bizkaitar edo giputz izateari... telebistako saioan euskalduna, kulturduna eta nafarra da, leitzarra.

Aipatutako adibide guziak gure ingurukoak dira; ezagutzen duguna horrela agertzen bada, nola fida ezagutzen ez dugunaz?

Jakin eza ausartia da eta, ikusten denez, 'jakintza' ere bai; oraindik ere ikasgaririk badugula da ikasteko jakin behar den lehenbiziko gauza, are gehiago irakasteko. Urak dakarrena, beraz, ez da beti garbia.



Xamar

## Aspaldiko kontuak

● Aspaldiko denboretan gertatutakoak beti badauzkate berezitasun bat, nahiz eta aunitz aldiz ez duten aunitz balio. Zokoak arakatzuz eskura etorri zait paper puzten bat mende hunen hasierako gertakizun bat agertzen duela, bi artzainen arteko lehia-keta, beren artaldeak zituztela auziaren lekuko.

1901garren urteko Maiatzaren 5ean, Urdazubiko Kattalin-koneko belaian ospatu zen lehia-keta interesgarri bat Xermin Mihura eta Beñardo Arriaga artzainen artean. Bi artzainek erakutsi zituzten beren artaldeak bakotzak 40 buruz osaturik, ardi eta marro. 100 pezeta yokoan alde bakotzatik eta zein artaldek ematen zuen pisu haundiena izanen zen irabaztale. Bi artaldean pisua negurtu ondoren, Xermin Mihuraren artaldeak eman zituen 80 kilo gehiago Beñardorenak baino eta Xermin-

nek apostua irabazi. Xerminek irabazi zituen 100 pezeta hoiekin bazkari bat egin zuen bi alderdietako lagun guziak gonbidaturik. Gainera Xerminek ekarri omen zuen kaiku haundi bat gaztanbera 18 pinta esnekin egina eta apostuan erakutsi zituen ardi hoiek eman zuten esnekin. Erran gabe doa otordu ederra egin izanen zutela eta pentsatzen dugu ere garai hartako 100 pezeta hoiekin, 40 lagunek ederki bazkaldu izanen zutela.

Xermin Mihura arras ezaguna zen gure mugako eskualde guzian artzain ona bezala beti artalde onaren yabe. Bere ilobak gure lagunak dira, denak elizondorrak.



Mariano Izeta Erlojularia

Escriva de Balaguer

**D**atorren igandean, Erromako San Pedro Plaza Opus Deik mundu zabalean dituen milaka jarraitzaileez beteko da. Elizak dohatsu izendatuko du

Josemaria Escriva de Balaguer, 1928an Opus Dei sortu zuen apaiza. Escriva de Balaguerrez eta beatifikazio honek, batez ere gizartean eta kristau elkarte ba-

tzuetan, sortu duen irrikiaz eta polemikaz mintzo da Jose Luis Illanes, Nafarroako Unibertsitateko Teologia Fakultateko dekanoa.

## «Jainkoak emandako seinaleak arindu du prozesua»

PABLO J. ARISTORENA / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Opus Dei 'Jainkoaren Ekintza' da latinez. Zergatik haundiki kutsua darion izen hori?

**JOSE LUIS ILLANES.**— Izena ez da haundia, behintzat Opus Deiren sortzaileak ez zuen asmo hori. Ez zitzaion berari bururatu. Behin apaiz lagun batek galdetu zion: «Nola doa Jainkoaren ekintza hori?», gaztelaniaz oso ezaguna den adierazpen bat erabiliz. Hori entzundakoan zera esan zuen: «Hauxe da izena!», egiten ari zena ez zela bere ekintza, Jainkoarena baizik.

**EGUNKARIA.**— Gizartean bada ordea, Opus Dei botere faktiko bat delako iritzia. Elizan nahiz erantzukizun politikoa, ekonomikoa ala gizartean bestelako eragin nabarmena duten zokomokoetan, Opus Deik eragina duela esan ohi da. Zer da zuzena eta zer ez zurrumurru horietan?

**ILLANES.**— Niri, Opus Deiko kidea naizen aldetik, ez zait gusatzaten *botere faktiko* adierazpenean sartua ikustea. Horrekin gizartea norabait zuzendu nahi duen errealitate bat ulertzen bada, Opus Dei ez da botere faktiko bat. Helburu izpiritualea da gurea eta ez dugu gizarte eredu zehatzik zabaldu nahi. Eragin izpiritualea izateak gaitu egiten du botere faktikoaren kontzeptua. Opus Deik zibileko maila guztietan erago, gizakia edozein lanbidetan iritsi bait daiteke santutasunera. Izpiritueltasun horretatik kanpo askatasun osoa uzten da Opus Dein nork bere iritzi politikoa, filosofikoa eta kulturalak izan ditzan. Horren arabera, ez gara eta ez dugu osatzen gizartean eragina izan nahi duen talde bat.

**EGUNKARIA.**— Egungo Zuzenbide Kanonikoak beatifikazio prozesu arinak errazten dituen arren, eta Opus Deik horren arabera zuzen jokatu duela jakinik ere, zergatik beatifikazio honekin bat ez datozenen kezka eta Escriva de Balaguerren alderdi ez hain ezagunak argitu arte ez da itxaron? Laster ibili behar hori ez ote da susmagarria?

**ILLANES.**— Lastertasunaren kontzeptua erlatiboa da, zerekin

konparatzen den. Prozesua arina izan da Zuzenbide Kanonikoak uzten duen bezala. Era artifizialean geldiaraztea ez zen egokia, artifiziala den guztia txarra bait da. Gehiago atzeratzea alferrikakoa izango zen. Gainera, prozesuaren zati bat ez dago giza borondatearen esku. Herriaren debozioa eta mirariak ere badira, Eskorialeko lekai karmeldarraren minbizia desagerpena, kasu. Jainkoak emandako seinale horrek arindu egin du prozesua. Bestalde, beatifikazio horrekin bat ez datozen oso gutxi dira. Beti berberak agertzen dira eztabaidetan, beti ere azken hilabeteotan, Espainian gehienak eta gutxi batzuk atzerrian. Beraz, ados ez daudenak entzun bai, baina batipat beatifikazioa txalotzen dutenei entzun behar zaie, gehiago dira eta.

**EGUNKARIA.**— Modernitatearen krisiak hain zatiturik duen gizarte batean badirudi, Joan Paulo IIaren beatifikazioekiko esku zabaltasunak, gaitza beste garaietako moldeez sendatu nahi dela. Espainiari gagozkiolarik, Elizako elkarte atzerakoienek erabiliko dituzten dohatsuak alderetan jartzea mesedegarria iruditzen al zaizu? Escriva de Balaguer eta Espainiko azken martiriez ari gara. Honek, ez ote du ustez gaitu dagoen bi Espainien irudia berpiztuko eta bi Elizena sortuko?

**ILLANES.**— Bi Elizen irudia mingarria izan daiteke. Ez daude bi Eliza, bakarria baizik, eta beronen barnean iritzi ezberdinak. Elizaren garrantzizko erabaki batek ere ez du zatiketa helburu, eta are gutxiago beatifikazioek, ez bait dira —Aita Santuaren asmatan—, alderdi bati besteen kaltetan laguntza ematea. Joan Paulo IIak ez die oztoporik jartzen prozesu hauei, bere ustez santutasuna beti ere santutasun delako. Espainiako gerrateko martiriei dagokionez, ez dira ez alderdi batekoak, ez besteak. Ez zaio arrazoia eman nahi gerratean ihardun zuen alderdi bati. Pertsona haiek Kristorengatik bizia eman zutela adierazi nahi da. Inork martiri horiek gerrateko alderdi batek arrazoi zuela esan-



Teologia Fakultateko dekanoa da Illanes.

JOXE

teko erabiliko balitu, ez lituzke zentzu kristau batean erabiliko. Antzekoa gertatzen da Escriva de Balaguerrekin. Haren beatifikazioa ez da Elizaren politika baten ondorioa, jarrera atzerakoi eta aurrerakoiak gaituzten dituen pertsona baten santutasunaren onospena baizik.

**EGUNKARIA.**— Hans Küng-ek, Vatikanok zigortu zuen teologoak, Opus Dei Aita Santuaren goardia pretorianoa dela adierazi du orain gutxi. Beste batzuek diote Opus Dei Aita Santuaren eskuineko eskua dela. Escriva de Balaguerren beatifikazioa Opus Deik Joan Paulo IIaren pastoralagintzari dion leialtasun eta laguntza akritikoaren ordainsaria al da?

**ILLANES.**— Opus Dei ez da Aita Santuaren goardia pretorianoa, ez beste inorena. Bestalde, Aita Santuaren eskuineko eskua Eliza

da. Aita Santuaren izateko arrazoia Elizaren batasuna da, ez inorekiko begikotasuna. Zentzu honetan esan dago saririk; gainera, Opus Deiren leialtasuna ez da akritikoa. Erromatik datozen esanak baliotsu bezala gureganatzen ditugu, Izpiritu Santuak Aita Santuari laguntzen diola kontutan hartuz.

**EGUNKARIA.**— Aita Santuarekin segituz, Santiagon izan zenean dei bat egin zuen Europa antzinako kristau erroetara itzul zedin. Batzuen ustez, Elizak gizarte zibilean galdutako nostalgiaren ezaugarria da Ertaroko katedral haundien irudia berpiztu nahia. Elizak, Opus Deiren laguntzaz, iraganeko eredu berreskuratzen nahi al du?

**ILLANES.**— Aita Santua egun bizi dugun balio krisiaz jabetzen da. Bere dei hori ez da erreklamo historiko bat, ebanjelikoa baizik.

Iragana ez da berriro eraiki nahi, baina, Ebanjelioan oinarriturik, Europaren abentura haundirantz abiatu nahi du Elizak, egungo mundua gisa guztietako aurrerapenez bultzatu duen Europa horretarantz. Opus Dei lan horretan partaide izateko prest dago.

**EGUNKARIA.**— Escrivak esan omen zuen XX mendeko heresia gizarte arazoengatik gehiegi ardua izatea dela, gisa honetan bigarren lekuan gelditzen bait da naturaz gaituzten eta erlijiosoa dena. Munduak irtenbide zehatzak behar dituen uneetan, hori ez ote da fedearen ikuspegi izpirituale eta ahistorikoak?

**ILLANES.**— Escrivaren esaldi hori horrela ulertu behar da: 1967an Iruñera etorri zenean esan zuenez, materialismo kristaua badago, kristauok ez bait gara errealitate materialetatik kanpo bizi, baina giza bizitzaren helburua zabalagoa da. Inork historiaren ikuspegi inmanentea badu, huts haundi batean bizi da. Escriva de Balaguer izpirituaren eta giza bizitzaren arteko oreka aurkitzen saiatu zen.

**EGUNKARIA.**— Joan Paulo IIaren azken entziklika sozialak, *Centesimus Annus* derituenak, argi eta garbi adierazten du giza-kiarekiko maitasuna eta, behenik, pobreenganakoa, beroengan ikusten bait du Elizak Kristo, bere egiteko justiziaren eragintzan zehaztuz. Opus Deik nola betetzen du, ikuspegi esperimentaletik, Elizaren dotrina soziala?

**ILLANES.**— Erantzute zaila eta luzea den galdera da hori. Opus Dei mezu hori bereganatu eta jendearen artean zabaltzen saiatzen da. Horrek ekintza ezberdinetan parte hartzeri darama. Opus Dei gizarte maila guztietan ari da eta bakoitzari zera eskatzen dio, bere onerako ezezik gizarte guzietan onerako ere lan egin dezala.

**EGUNKARIA.**— Esan ohi da arriskuaren alde apostu egitean dagoela salbamena eta porrotean garaipena. Lehen aipatutako il-dotik jarraituta, badirudi Opus Deik garaipen tenporala duela helburu eta ez duela deus ere arriskuan jartzen.

**ILLANES.**— Nire ustez, Opus

**+** Escriva de Balaguer

Deik gauza asko jarri du arris- kuan, erosotasunez ez bait da ezer egiten. Escrivak homilia batean kristauaren «segurtasun arrisku- tsua» aipatu zuen. Segurtasuna badu, Jainkoa berarekin duelako, baina arriskutsua da Jainkoak de- na eskatzen diola badakielako. Opus Dein hartzen dugun arris- kua ez da arinkeriaz hartzen den horietakoa, Jainkoaren maitasu- nak sortzen duena baizik, maitasunak asko eskatzen bait du. Horren garrantzia ez datza lotu- rarik gabeko ekintzetan, nork be- re lekutik saiatu behar du arazo- rik gabeko gizartea eratzten.

**EGUNKARIA.**— Arazo tenpora- lekin segituz, politika esparruan Opus Deiko zenbait kidek duen itxuraldatzeko ahalmena eta oportunitatea aipatzen dira sarri. Jakina kideetako batzu Franco- ren ministroak izan zirela. Horre- lakoetan, nola eraman litezke ba- tera alderdi izpirituala eta tenpo- rala, Cesarri ematen zaiona Jain- koari eman behar zaionaren aur- ka badago?

**ILLANES.**— Cesarri ematen zaiona Jainkoari eman behar

**O**pus Deiko zenbait kidek Francorekin ihardun zuten, gisa horretan Espainiari onura egin ziezaioke- telakoan. Horrez gain, Espainiako Elizaren hierarkiak ez zuen esan hori zilegi ez ze- nik. Are gehiago, Franco katolikoa zen.

zaionaren aurka badago, bistan da, ez zaiola Cesarri eman behar. Baina honetan oso arazo korapi- latsuan sartzen gara, norberaren kontzientziak esatekorik badu eta. Opus Deik bere kideei kris- tau bidean jokatu behar dutela erakusten die. Horregatik, fedea kontutan hartu behar dute. Era berean, Opus Deik giza askata- suna eta aniztasuna kontutan hartzen du. Kide batzuek Fran- cori lagundu zioten eta beste bat- zuek ez. Bestalde, ez dut maite galderan erabili duzun oportu- nismo kontzeptua, Opus Deik ez bait du joku taktikorik egiten. Pertsona haiek Francorekin ba- tera ihardun zezaketela uste zu- ten eta gisa horretan Espainiari onura egin. Honez gain, Espai- niako Elizaren hierarkiak ez zuen adierazpenik egin, katoliko ba- tentzat Francorekin eskuz esku ihardutean zilegi ez zela esanez. Are gehiago, Franco katolikoa zen.

**EGUNKARIA.**— Elizaren hierar- kiak frankismoa gaitzetsi ez zuen arren, katoliko asko eta asko aur- ka agertzen ziren. Sistemak giza- kiari zor zaizkion eskubideak, politikoak bereziki, ez zituen



Jose Luis Illanes

JOXE

errespetatzen. Jarrera hori ez al- dago askatasunaren oinarritzen den kristau mezuaren aurka?

**ILLANES.**— Historia ulertzea ez da batere erreza eta norberaren ikuspuntua bizi izan duenaren arabera dago baldintzatuta. Ne- roni, Francoren jokaera askore- kin ez dator bat. Baina une hartan bi gauza egin zitezkeen: erregi- menaren aurka jo ala barrutik al- datzen saiatu. Biak dira zilegi eta fedearen izenean ez bata eta ez bestea ezin dira baztertu. Bakoit- zaren kontzientziak erabakitzen du zer egin eta, nire-ustez, kon- tzientzi askatasuna errespetatu behar da.

**EGUNKARIA.**— Zer ulertzen du Opus Deik kontzientzi askata- sunaz?

**ILLANES.**— Iritzi tenporalak au- tonomiaz eratzeko aukera da kontzientzi askatasuna, beti ere, kristau fedearen barnean, bakoit- zaren ulermen eta jakitearen ara- bera. Fedea bizitzaren argia da, baina fedez kanpoko alorretan askatasunez erabaki behar da zer den egokiena.

**EGUNKARIA.**— Beatifikazioa proselitoak lortzearen propa- ganda gisa erabiliko al da?

**ILLANES.**— Ez. Opus Deik ez du sekular propaganda proselitoak lortzearen erabiltzen. Gu kristau izpiritua zabaltzen saiatzen gara, eta badaitzake batzuek Jainkoak Opus Deira deitzen dituela soma- tzea. Beatifikazioak, Opus Deiko kideok geure erantzukizunaz ja- betaraziko gaitu.

**EGUNKARIA.**— Zein da Escriva de Balaguerren eta zein Opus Deiren bertute nagusia?

**ILLANES.**— Karitatea da Escriva de Balaguerren bertute nagusie- na. Bestalde, Opus Deiren ezau- garririk azpimagarriena lanean santutasunerako deia da. Egune- roko zereginetan azaltzen den santutasuna da Opus Deiren kar- ritatea.

**EGUNKARIA.**— Zein da Escriva de Balaguerren eta zein Opus Deiren akatsik nabarmenena?

**ILLANES.**— Ea, ea, ba... hutsegi- teez hitzegietarakoan hobe da norbereetaz hitzegitea. Hamasei urtez bizi izan ginen elkarrekin. Pertsona zehatz eta erreal bat zen Escriva, izaera zehatz batekoa. Somatu nuen, bai, gizon mugatua zela, baina bere hutsak gaindit- zearren borrokatzen zen. Opus Deiri dagokionez, erakunde ba- ten akatsak adieraztea baino ego- kiagoa da erakunde osatzen duen kide bakoitzaren okerrez ihardutea.

**EGUNKARIA.**— Bukatu dezagun datorren igandeko ospakizuna aipatuz. Aita Santua buru, be- rrehun baino gotzain gehiago, horietarik hogeitamar espainiar, bilduko da Erroman. Zer deritso- zu Elizak egiten duen adierazpen publiko haundi honi?

**ILLANES.**— Igandeko ospakizun haundi horrek Opus Deik Eliza- ren zati bat osatzen duela ager- tzen du, Elizarekin bat egiten duela eta, era berean, Elizak ere Opus Deirekin bate egiten duela.

## «Indar berezi batek bultzatzen gaitu»

P.J.A. / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Opus Deiko ki- deek Escriva de Balaguerrengana duten gehiegizko mirespe- na aipatu izan da sarritan. Jakina da berari 'Aita' esanez zuzentzen zaretela. Mateoren ebanjelioak honoko hau dio: «Zuek ez utzi inori 'maisua' izenik zuei ematen; bakarria bait da zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide za- rete. Eta zuen ar- tean ez eman inori 'aita' izenik lur gainean; bakarria bait da zuen Aita: zerukoa».

**ILLANES.**— San Paulok, maisua asko ditugula dio, baina Aita bakarria Kris- torengan. Lekuz kanpoko litzateke inork Jainkoari Aita dioen suga- rrez beste norbaiti Aita esango balio. Escrivari Aita esa- ten diogu, kristau bizitzan indar bereziak bultzatzen gaituela ja- betzen garelako.

**EGUNKARIA.**— Bazterretan esa- teko asko sortu duen beste gai bat emakumeek Opus Deiren bar- nean duten eginkizunarena da. Escrivak 1928an Opus Dei sortu zuenean gizonezkoentzat zuzen- du zuen lehenik. 1930ean emaku- meei sarrera eman zien. Escrivak esana da, «emakumezkoak ez du- te zertan jakitunak izan beharrik, nahikoa dute sotilak, diskretoak izatearekin». Nola ulertzen da?

**ILLANES.**— 'Camino-ko' esaldi hori bere garaian ulertu behar da. 1930. urteetako hamarkadan uni- bertsitatean ziren emakumeen

kopurua txikia zen. Escrivak bere garaiko gizartearen errealitatea jasotzen du. Emakumeen artean ere apostolutza egin nahi zuenez, ikuspegi zabalagoa behar zuen. Ikasketak zituzten emakumeen- gana soilik jo izan balu, esparru murrizta topatuko zukeen. Ho- rregatik, ez da bakarrik horiengana zuzentzen, sotiltasun, diskre- zio ahalmena dutenengana baita ere, hots, giza eta izpiritu sakon- tasun haundia du- tenengana.

**EGUNKARIA.**—

Beraz, Opus Dei, ikutu elitistaz, maila intelektual nabarmeneko per- tsonengana zuzen- tzen da lehenik...

**ILLANES.**— Opus Deikoen apostolu- tza ez da elitera mu- gatzen, nahiz maila intelektuala dute- nekin hastera kome- nigarria den gero hauek gizarte

klase ezberdinetan dauden per- tsona guztiakin lan egiteko. Gi- zonezkoekin unibertsitatean egin zuen apostolutza, eta emaku- mezkoekin ez zen unibertsitate mugatu.

**EGUNKARIA.**— Zein da Opus Deiren gizarte eta gizon erredua?

**ILLANES.**— Opus Deik ez du gi- zarte eredurik, ez bait da gizartea aldatzeko sortu den erakunde bat. Guk dugun gizaki erredua mun- duaren erdian santutasuna lana- ren bitartez lortzen saiatzen den kristauarena da. Pertsona hori gi- zarte ezberdinetan bizi da eta bere jakinduria, ahalegin eta kristau izpiritu eraldatuko du inguru- nea.



Escriva Torreciadako santutegian, 1975ean. Bere eskuinean, Alvaro del Portillo, gaurko burua.

## Gazteendako Zokoa

## Mozolo arrunta

*Athene noctua*

Oso arrunta  
Gustoko toki zabalak  
Txikienetakoa



### Onuragarria nekazaritzan

Gabez aritzen diren harrapakari arruntena da, eta bere ohi-turak hontzak dituenen antzekoak dira. Hori bai, begibistakoak dira bi espeziekide hauen arteko desberdintasunak, tamaina eta zabalpenari dagokienez, funtsean.

Antzinean, Atenea jakinduriaren jainkosaren omenez kon sagratu zuten belatza, eta Atenasen, grekoen hiriburuan, animalia totemikoa zen. Gure gizartean, ordea, frankotan hartua izan da madarikatutzat, eta, arrazoi garbirik gabe, bere kontrako kanpainak ohizkoak izan dira, batez ere nekazarien artean.

Oso txikia da bere espeziakideekin alderatuz gero —60 zentimetro hega-zabalera— eta ez ditu gustoko baso eta zona itxiak. Aldiz, erraz ikustekoa da alde zabalentan, eta harkaitz, baseliza edo eraikinen hondakinetan paratzen ditu txofrakiak.

Sekulan ez du uzten bizitokia, eta arrastiri edo goizaldean ateratzen da harrapaketak egiteko, bereziki intsektu handiak, arratoiak, saguak, eta ugaztun txikiak. Hala ere, txoritxoak, igelak, sugandilak eta muskerren bat ere harrapatzen ohi ditu. Guzti horrengatik oso onuragarria da nekazaritzarako.



## Oiloaren kanta

### IZASKUN PITILLAS

Aitziberren autoa baserriko leihotik argi eta garbi ikusten zen. Malko txikiak ateratzen zitzaizkidan begietatik, nire alabarekin hirira joan behar nuela pentsatzen nuenean.

Baserrian betidanik bizi izan eta zibilizazioaren mundura joan beharrak goibel jartzen ninduen. Emaztea hil berria nuen eta ni bezalako agure batek ez zezakeen etxean bakarrik ezer egin.

Aitziber iritsi zenerako dena prest zegoen; liburuak, baserriko gazta, arropa... Bakarrik ni falta nintzen, baina, jakina, ezin nituen utzi zelai berdeak, txoriak eta batez ere mendiko egunsentiak. Gogorra zen, baina onartu behar

nuen. Aitziberren autoan igo eta pixkanaka pixkanaka nire oroi-penak desagertzen joan ziren.

Hirira iritsi nintzenean ikusi nituen lehendabiziko tresnak autoak izan ziren. Pila bat zegoen eta guztiak turuta jotzen zuten. Ardiek otsoa ikusterakoan sortarazten zuten istilua ziruditen.

Nire alabaren etxea nirea baino askoz dotoreagoa zen eta tresneria mekaniko ugari zituen.

Nire alaba bakarrik bizi zen, baina egunero jai bat antolatzen zuten. Hiru aste jarraian igaro nituen etxean, kalea ikusi gabe eta oso asperturik. Aitziberrek egunero auzotar bat ekartzen zuten nirekin egoteko, baina ez nituen gustokoak. Goizetan oso garaiz esnatzen nintzen egusentia ikus-

teko baina ez zen mendietakoa bezalakoa, kea bakarrik ikusten bait nuen.

Poliki-poliki nere barneko egoera okertzen joan zen eta hain goibel nengoenez gaixorik jarri nintzen. Aste bat igaro nuen ospitaleko behatokian eta medikuak nire arazoa gogaitasuna zela eta horrek bihotza kutsatua zuela esan zuen.

Denbora gutxi geratzen zitzaidan eta medikuaren ustez baserriera eraman behar ninduten. Eraman ninduten, beraz, oso egoera larrian, baina dena konpondu zen esnatu eta oiloaren kanta entzun nuenean.

Baserrian nengoen berriro eta honek bihotza bere lekuan jarri zuen azkenez.

### BASAJAUN

Ez, ez da parririk egiteko gauza, noski, baina benetan giza-kumeek ozono geruza hau gryere gazta bezala utzi behar dute! Azalduko dizuet zer gertatzen den zulotxo horiek.

Ozonoaren zulotxoaren aurrera joan da industrien beren interesak dituztelako, eta CFC gasaren produkzioa ez delako gutxitu behar zen moduan, hau da, erabat. Beste gas batzuk ere kaltegarriak dira ozonoarentzat baina, orain arte, arazoa konpontzeko ez dira aurrera eraman beharrezkoak ziren prozedurak.

Ozonoaren geruzak ultramore izpien aurkako babesa ematen dio gizakume eta luraren bizitzari, eta ozono falta hau oso kaltegarria da lurarentzat. Desitxuraketa genetikoak, larruko minbizia, begietako gaitzak eta beste gaixotasun batzuk sor ditzake.

Iparramerikan azken urteotan larruko minbiziaren gorakada adierazgarria nabari dute, zulo hori dela eta, eta orain dela gutxi beste zulo bat aurkitu dute Artikoan, % 5ekoa. Eta guk zer egin dezakegu?

Oso erreza da. Spray produktuek ez erabili, zure enpresarako aire girotua ez erosi, CFC erabiltzen ez duten beste sistemak erabili. Zerbait erostean produktuei buruzko informazioa zuzena eskatu, eta abar. Spray famatu horiek onak balira bezala agertzen dira kontsumitzaileen aurrean, baina ez da egia, eta hau guztion arazoa da, gure esku bait dago lurra. Zain dezagun bada!



### KAZKARROAN

#### Escrivaren beatifikazioa

1/ Elkartu behar dira Erroman makina bat bikario ta Opuseko gehienak ere hortara doaz propio nahaste ederra sortu digute  
Escriba dela medio  
Aita Santuak aldaretako bide ematen badio  
pobreziaren botoak ez du ezertarako balio (bis)

2/ Espainian ere modan jarri da abiada haundiko treneta geltoki bat izango al da kanonizatzearena  
sinisten duen harentzat ere zail da sinistea dena kontuak kontu saltsa guztiak ematen dit nahiko pena orain batzuek lortuko dute  
Francok lortu ez zuena (bis)

3/ Lehendikian ere ez geunden baina orain ez gaude pakian trumoi gaizto bat somatu degu  
Iruñeko partian aberatsaren aldeko dana eta pobreen kaltian beste modurik ez baldin bada hola kontsola gaitian behintzat pakea emango dute  
Erroman dauden artian (bis)

Manu Gomez

O A T A R R A B I A E Z  
L U L U M Z I Z U R E F  
H A K L T S E K L N E B  
R N Z O E E T I T A D A  
O T I K A R R R Ñ I L Z  
A S B E H R O A A T A R  
R O N E T N A K S Z I A  
R A K N I A Ñ A R A B N  
A I I K Ñ A S D Z E N A  
Z N O D B U R L A T A O  
I D N I R U Ñ E A O L A  
L K Z A B A L L A F A T

### LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan bostla baino biztanle gehiago ditzuzten udalerrien izenak. Herrion izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalen irakurrita agertuko zaizkizu.

### Zaharrak Berri

Nahiko duenak ongi bizi, gaurko afarie biharko utzi. Eguneko gehiegizkoa biharomonerako gorde.

Muskitz (Imotz)

Txakurrak anitz yausi, guti ozkiten.

Zakur zaunkalaria ez da hozkaria.

Zaraitzu

—Lanean ari nintzen bitartean ez erretzeko esan dit sendagi-leak.

—Eta bete duk agindua?

—Bai, geroztik ez dut lan egiten.

## Bizi Bizian

# Aranguren, konponbidean

**B**i urte pasatxo iraun duen gatazkaren amaiera izan daiteke hurrengo astetik aurrera Aranguren eta Iruñerriko Mankomunitatearen artean hasiko diren elkarriketekin. Juan Cruz Alli lehendakariak bultzatuta, Arangurengo udaletik bertatik atera zen elkarriketak hasteko borondatea, zentrua egina eta martxan paratzeko prest zegoela ikusita. Orain, haranarako kalteak ahalik eta txikien izan daitezen ahaleginduko dira Arangurenekoak. Egoera biolento franko sortu duen gatazka bat konponbidean, beraz.

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Gongorako birziklapen zentruaren —zaborteia kaltetuen hitzetan— proiektuak onartu zenetik sortu duen gatazka konponbidean dagoela dirudi. Hilak 18an, hurrengo astean alegia, Iruñerriko Mankomunitatea eta Arangurengo udaleko ordezkariak bilduko dira zentruaren hobekuntza teknikoak aztertzeko.

Lehenengo elkarriketa horren ostean beste batzuk etorriko dira, bi egunero bilduko bait dira bi aldeak «zaborteiak ondorio negatibo txikien izan ditzan saiatzeko».

Azken lau urteotan Iruñerrian bizi izan den gatazka honi irtenbide bat bilatzea kostata egin da beraz. Aurreneko pausua Arangurengo udalak eman zuen apirilaren 28an «zaborteia» zabaldu baino lehen Mankomunitateari elkarriketa eskaera egin zionean. Bigarrena, Beak, elkarriketari «positiboa» erizterakoan, eta hirugarrena, eta garrantzitsuena, Allik, mahai inguruan biltzea «ezinbestekoa» zela adieraztean.

### ARANGURENGO UDALAREN ESKARIAK

Zentrua kontrolatzeko gaitasuna izatea, birziklapena, konposta, eta beste gai batzuk aztertzea dira Arangurengo udalaren helburuak, batzarren hartutako erabakiaren arabera. Honekin batera, eskakizun zehatza: hondakin industrialak, toxikoak zein ospitalakoak, Gongorako zentruan ez metatzea, alegia. Halaber adituen laguntza eta «alde bien malgutasuna» proposatzen du udalak



Iruñeko zaborren tratamendua egingo da Gongoran.

JOXE

elkarrekin aritzerakoan. Elkarriketarako eskaera hau maiatzaren 7an egin zuen Arangurengo udalak, eta segituan, baiezkioa eman zion Carlos Bea mankomunitateko presidenteari. Lehengo jarrera itxia ahaztu eta hobekuntzak sartzeko prest omen dago erakundea eta berria jakin bezain pronto baikor agertu zen erakundeko lehendakaria.

Egun horretan bertan, Villamayorrek eta Beak elkarrekin egindako oharra bidali zuten komunikabideetara, lehenengo bilerara ofiziala noiz egingen zen

zehazteko. Hurrengo egunean, maiatzak 8, Juan Cruz Alli eta Villamayor elkarriketatu ziren. Aurreko gobernuak onartu zuen proiektuaren ezaugarriak bete ezean zentrua ez dela zabalduko agindu zuen presidenteari. Jauzi kualitatibo garrantzitsua, irtenbiderako ateak zabaltzen bait zizkion lehendabiziz gatazkari. Elkarriketetan Nafarroako Gobernua artekarari gisa arituko da.

Arangurengoek onartzen ez duten inposaketa dela berretsi egin zuten Alliren aurrean, baina orain, ondorio txikien izan ditzan

saiatuko dira. «Ez dugu azpiegiturarik edota beste motatako kontraprestazioak eskatzen. Arangurengo bizilagunen osasuna da kezkatzen gaituena. Behin eta berriro salatu dugu proiektua, baina egina dagoenez...».

Bitartean, Mankomunitateak prestatua zeukan bilteta hautagaiak kanpaina atzeratu egin da, eta nahiz eta Gongorako zentruaren lanak bukaturik egon—Mankomunitateko prentsa arduradunak esandakoaren arabera—Gobernuak eman behar dion lizentziaren zain dago.

## Pertsonaiak



Carlos Bea

● Iruñerriko Mankomunitateko presidenteari bere indarrak xahutu ditu zentru honen erakitze prozesuan. Errealitateak, ordea, leku txarrean utzi du, bizpahiru aldiz atzeratu behar izan bait ditu datak. Arangurengo Udalak zentrua 'onartu' baino lehen, kritiken erdian izan da frankotan Bea zeukan jarrera itxia zela eta. Izan ere, Iruñerriko politikari askok —Bea barne— euren prestigioa paratu dute jokuan proiektu honetan, eta Udala eta erakunde honen arteko tirabira gertutik jarraitu duten iturriek azaltzen dutenez, «dimisio eta krisi politikoak beharrezkoak izanen ziren proiektua atzera botatzeko». Alliren presioa atzetik, zenbait gauzatan amore eman beharko du orain Beak.



Juan Cruz Alli

● Nafarroako lehendakaria izango da, dudarik gabe, hilaren 18an hasiko diren elkarriketen erreferentzi puntua. Nahiz eta aparteko garrantzia eman ez, elkarriketaren aldeko bere adierazpenen bitartez jauzi garrantzitsua izan da ez bakarrik Gongorako zentruaren auzian, baita Nafarroako gatazka ekologiko guztietan ere. Allik garbi adierazi zuen zentrua zabaltzeko baimenik ez zuela emango elkarriketarik gabe, eta akordioa iritsi ezik Gobernuak epaile lana egingo zuela gaineratu zuen. Jarrera testimonialetik harantzago joan da, beraz, Alli eta ixtear zegoen auziari konpontzeko bidea har dezan bultzada eman dio. Sanz lehendakariordea izango da, Gobernuaren ordezkari gisa bertan.



Jose Antonio Villamayor

● Arangurengo alkatea Gongorako zentruaren kontrako mugimenduko burua izan da urte hauetan. Haste hastetik proiektuaren kontra azaldu zen, eta haran osoak atzetik jarraitu zion Arangurenko alkateari. Protestaldiaren funtsa zaborteia eta birziklapen zentruaren arteko eztabaida izan da, eta Alemaniako teknikarien partaidetza ere eskatu zuten bere garaian. Mankomunitatearen jarrera sendoa, ordea, ez du zentruaren funtsa aldatzeko zirrikiturik utzi, eta orain zenbait aldaketa, zentrua bera hobetuarren, eztabaidatuko dira. Akaso bide honetan akatsik handiena Iruñerriko beste herrietako laguntza lortu ez izana izan da. Nor bere herrian paratzeko beldurra ote?

## Fernando Arretxe

Pilotaria

# «Retegiri irabazteko behar da anitza izan»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

**EGUNKARIA.**— Partidutik bi egunetara, zer moduz zaude: haserre, amorraturik, lasai?

**FERNANDO ARRETXE.**— Ez, ez, ni banekian eta noizbait behar nuela galdu, eta bueno, Retegi banekian kontrario handia zela, eta ez zela batere aisa izanen irabaztea. Gero, ostegunean hautatu genituen pilotalekila gelditu nintzen samurtua, ez nintzen batere kontent. Nik nahi nuen, erran nuen bezala, gehiago pilota. Nik uste nuen Retegiren kontra hori behar zela, eta ez nuen harrapatu otarrean. Ordea, aitzinean, egon nintzen pixkat gaizki, baina gero, finean, behar zen partida jostatu. Hala ere, pilotalekila ez zen batere aisa Juliani irabaztea. Behar zen anitz pilotatu, eta ez zen batere aisa. Gainera, Julianek sartu zidan zortzi sake..., sobera, sobera. Hiru edo lau arrunt zailak ziren, baina beste bizpahiru itzultzekoak ziren. Huts egin nituen, hor ere suerte piskat txarra izan nuen, eta partidua joan zitzaidan.

**EGUNKARIA.**— Ogetan, pilotak ikusterakoan, pentsatu zenuen partidua ordurako galduta zegoela?

**ARRETXE.**— Nik eta uste nuen betiko pilotekilan emanen niola gehiago lan. Pilota horiek ikusiz geroz, banekian eta aisa zailagoa izanen zela partida. Nik uste pilota horiekilan Juliani irabazteko behar dela anitza izan.

**EGUNKARIA.**— Pilotaz aparte, urduri samar ere ibili zinen hasierako tantuetan, Retegik aisa

egin bait zituen. Askotan aipatu da nerbioek ere eragina badutela zugar partidua zailetan.

**ARRETXE.**— Bai, eta, ni oroitzen naiz Errandonearen kontra ez nintzela batere nerbiosturik atera, baina Julianen kontra gehiago agarrotaturik atera nintzen. Harik eta atzo banituen kriston agujetak. Hori da agarrotatu nintzela-kotz.

**EGUNKARIA.**— Eta zergatik Re-


**R**etegiren kontra galtzea kolpea izan da, baino franko urte daramagu hemen pilotan, eta prestatu gara irabazteko eta galtzeko. Ez naiz urrun gelditu eta ikusiko dugu beste urte batean zer egiten ahal den.

tegiren kontra? Fisikoz aparte, psikikoki ere ematen du eragina baduela zuengan, Galarzaren kontra ere antzekorik gertatzen delako.

**ARRETXE.**— Bai, bai, beti agertzen da 'sindrome Retegi' edo hori, baina ni atera nintzen kantxara eta ez nuen hortan pentsatzen. Beste pilotariaren kontra ari nintzela nuen buruan, gehiagorik ez. Eta horrela atera nintzen, baina ez dakit pelotarengatik edo zerengatik, atera nintzen agarrotaturik.

**L**uzaidearrak Retegiren kontra galdu zuen joan den igandean Gasteizko Ogeta pilotalekuan, buruz buruko txapelketarako azkenaurreko partiduan. Arretxe ez zen finegi ibili, edo Retegi bikain aritu zen —nork daki?—, eta azkenean, hamahiruga-

rren aldiz segidan, Eratsungoa finalean izango da. Arretxek, baina, protagonismo berezia hartu du aurten, askoren ustez faboritorikoa bait zen txapelketan. Pilota ez gustokoak eta nerbioak, berak esan bezala, zapuztu zituzten bere gogoak.



JOXE

aintzinerara ikusiko da: edo hor mantentitu, edo gora egiten duan.

**EGUNKARIA.**— Pronostikoren bat izanen duzu finalerako.

**ARRETXE.**— Nik uste dut pilotek badutela inportantzia handia. Izaten badira pilotak pixkat bi-ziagoak, irabaziko du Galarzak. Izaten badira pilotak igandekoak bezalakoak, irabaziko du Retegik.

**EGUNKARIA.**— Batzutan ere esan ohi da pilotariak aitzakia gisa paratzen dutela pilotena, ez duela hainbesteko garrantzia.

**ARRETXE.**— Baldin bada pilota biondako, orain untsa. Joan den urtean ere, finalean, Galarzak bazituen bere pilota biziak, eta irabazi egin zuen. Retegik bazituen apalagoak, eta egin zuen takada tantikan, eta hamabira edo berdindu zuen. Bakoitzak bere pilotalekila egin zituen bere takada. Baina ez baldin bada pilota

batendako, ordean harek ez du egiten ahal deus ere, eta ordean besteak irabaziko du.

**EGUNKARIA.**— Retegik aipatu zuen partidua aurretik, zurekin galduta pentsatuko zuela berriro buruz buruko txapelketan parte hartzea. Gertu ikusten duzu Julian erretiraturata?

**ARRETXE.**— Ez, ez, oino ez. Oino badu jokua zenbait urteendako, eta berak uste dut gorputza untsa duela, eta hala demostratzen du. **EGUNKARIA.**— Hor dabilta pilotari gazteak: Eugi, Unanue... Hurrengo urteetako txapelduna zein izanen da, goian dabilta horietako bat, edo atzetik datozen besteren bat?

**ARRETXE.**— Nik uste dut oraindik Galarza pilotari handia dela, baina heldu dira beste pilotari handi batzuk: Eugi, Beloki. Azken honekila izan naiz entrenatzen, eta uste dut badituela gaitzeko posibilitateak profesionalean.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERBA

